

GIPUZKOA QUANTUM 2024 PROGRAMAKO **DIRULAGUNTZAK**

Diruz lagunduko diren ekintzak:

Laguntzak teknologia kuantikoen arloko I+G proiektuak osorik edo partzialki finantzatzeko erabiliko dira.

Enpresek edo enpresako I+G unitateek lankidetzan aurkeztutako proiektuei emango zaie lehentasuna.

Eskabide horiei erantzun ondoren, oraindik aurrekonturik badago, ZTBESko ikastetxeek lankidetzan aurkeztutako eskaerak baloratuko dira.

Azkenik, ZTBES zentroen banakako proiektuak.

Proiektuen hasiera data: **Laguntza-eskaera aurkezten denetik aurrera.**

Proiektuak gauzatzeko gehieneko epea: **2025eko ekainaren 28a baino lehen.**

Erakunde onuradunen betekizunak:

- UPV/EHUK lankidetzan proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du lider gisa. Honako hau ulertzen da lankidetzatza: Laguntzen duen erakunde aditua kontratatzea (teknologia horietan esperientzia duen ZTBESko enpresa edo zentroa), proiektuaren aurrekontu osoaren % 30 gutxienez; edo erakunde laguntzaileak gutxienez 30.000 €-ko ekarpena egitea
- UPV/EHUK banakako proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du.

Ikertzaile nagusiaren betekizunak:

Funtzionario- edo kontratu-lotura UPV/EHUREkin, eskabidea aurkezten denetik eta proiektua gauzatzen den bitartean (2025eko ekainaren 28ra arte).

Ikerketa-taldeko kideen betekizunak:

Eskaera aurkezten den unean UPV/EHUREkin funtzionario- edo kontratu-lotura izatea.

GARRANTZITSUA: Laguntza gauzatzen den bitartean UPV/EHUREKIKO lotura amaitzen duten ikerketa-taldeko kideek ezingo dute gasturik egotzi egoera horrek irauten duen bitartean. Ikertzaile nagusiak Ikerketa Errektoreordetzari jakinarazi beharko dizkio proiektua gauzatzean gertatzen diren bajak.

Aurrekontua egiteko jarraibideak:

UPV/EHUREN kasuan, gehieneko dirulaguntza diruz lagundu daitezkeen kostuen % 100era irits daiteke. Proiektu bakoitzeko gehieneko dirulaguntza 120.000 €-koa izango da lankidetzan proiektuetarako, eta gehienez 80.000 €-koa banakako proiektu bakoitzeko.

UPV/EHUKO taldeek aurkeztutako eskaerak proiektu bakoitzaren zentroaren aurrekontu osoaren zeharkako kostuen % 20 jaso beharko dute.

Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Eskabideak aurkezteko epea 2024ko ekainaren 13an amaituko da, 13:00etan.

Barne-trmitazioa UPV/EHUn:

Ikertzaile nagusiek memoria beteta bidali beharko dute convocatoriasautonomicas.dgi@ehu.eus helbide elektronikora, lider edo laguntzaile gisa parte hartu nahi duten adieraziz, **2024ko ekainaren 5a baino lehen, 12:00etan.**

Oharra: Deialdian ikastetxe bakoitzerako baimendutakoa baino eskaera gehiago jasoz gero, IGBB ekainaren 7an bilduko da zein eskabide aurkeztuko diren erabakitzeko, eta ekainaren 8an erabakia interesdunei helaraziko zaie.

Eskabideak web bidez aurkeztea:

1.- Eskaeraren alta ematea aplikazioan. Horretarako, honako datu hauek adierazi behar dira lehenengo pantailan:

IFK: Q4818001B

Eskatzailea: Proiektuaren IP datuak.

Posta elektronikoa: convocatoriasautonomicas.dgi@ehu.eus

2.- Ekainaren 7ko 12:00ak baino lehen, eskaera aplikazioan igonda egon beharko da, eskatutako dokumentazioarekin batera, Ikerkertaren Zuzendaritzak legezko ordezkariaaren izenean sina dezan.

Horretarako, egiaztatuko da taldeak osatzen dituzten kideak bat datozela UPV/EHUnen barne-araudiarekin, unibertsitatearekin funtzionario- edo kontratu-lotura dutela eta, gainera, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela.

Aipatutako baldintzaren bat betetzen ez bada, eskabideak ez du legezko ordezkariaren balidazioa lortuko.